



Ekipoa	Ura biltzeko iragazki estatikoa, < 10 mm-ko zuloarekin
Kodea	A-1010
Ingurumen-hobekuntza	<ul style="list-style-type: none"> - Ez dio eragiten ura hartzen den inguruneko florari eta faunari. - Hondakinen sorkuntza ia erabat minimizatzen da. - Ur-bilketaren eraginkortasuna handitzen da.
Honetan datza:	<p>Iragazki estatikoa zati mugigarririk gabeko iragazki urperagarri bat da, ibaietako, aintziretako, urtegietako eta itsasoko ura biltzeko diseinatua. Ura biltzeko erabiltzen da, ingurune erauzlean mailaren sare-zuloa baino handiagoak diren solidoak, flora eta fauna utzita. Hala, horiek erauztea saihesten da, biltzeko ekipo tradizionalak ez bezala.</p> <p>Bere egitura oso sendoa da, erabat soldatua, azalera laua eta ertzik gabea du, V formako profilez osatua. Xurgatze-abiadura txikiak hargunea buxatzea minimizatzen du. Ur-hargunearen azalera irekia handia denez, bildubeharreko ur-emia zirrikituetatik jariatzen da, uherdurarik gabe eta oso abiadura txikian, eta biltzen den uraren norabidearekiko paraleloan instalatzen direnez, solidoak, flora eta fauna hargunearen azalera gelditu gabe igarotzen dira (soldoek arrastaka daramatzen korrontearekin jarraitzea ahalbidetzen du).</p> <p>Zuloen neurria 0,5 mm eta 10 mm artekoa da, instalazioaren beharren arabera, eta ura danborraren harietatik edo iragazte-zirrikituetatik pasatzeko abiadurak oso txikiak dira ($v=0,15$ m/s, gehienez).</p> <p>Garbitzeko, hargunearen barrura airea presioz injektatzen da, korrontearen kontra. Barruan eta bertan zehar, aire-banagailu bat instalatzen da garbiketa egiteko. Eskuz edo automatikoki egin daiteke, garbiketa sekuentzialki egingo duen programatzailerik zikliko baten bitartez.</p> <p>Aireak atxikitako solidoak iragazte-azaleratik urrutira botatzen ditu. Jaurtitzen dituen ura bildu den ingurune berean geratzen dira (itsasoa, ibaia, urtegia edo aintzira). Hala, ez dago horiek jaso edo manipulatu beharrik.</p> <p>Normalean, ekipo horiek hainbat motatako altzairu herdoilgaitzez eta aleazio bereziz egiten dira, aplikazioaren arabera. Ekipo horiek honakoak osatzen dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ura biltzeko ekipo edo unitate espezifiko bat. - Aire-metaketarako tanga kargatzeko beharrezkoa den aire kopurua hornitzen duen konpresore bat. - Aire konprimatua metatzeko biltegi edo tanga bat, konpresorearen bidez elikatua.



	<ul style="list-style-type: none">- Balbula elektro-pneumatikoz eta hodiz osatutako sistema bat, metatze-biltegia ur-hargune bakoitzeko konexioarekin lotzeko.- Aginte eta kontroleko armairu bat, ekipoa eskuz edo automatikoki funtzionatzeko.
Zein sektoretan aplikatu daitekeen	<p>Ur-hargune bat duten sektore guztietan aplikatu daiteke, adibidez:</p> <ul style="list-style-type: none">- Geatzeko instalazioetan, (EJSN 36).- Ura edangarri bihurtzeko instalazioetan (EJSN 36).- Ureztatze-sistemetan (EJSN 01).- Suteen kontrako sistemetan (EJSN 10, 11, 16, 17, 19, 20, 21, 22, 23,24...).- Arrain-haztegietan (EJSN 03).- Igerilekuetan eta spa-guneetan (EJSN 551, 553, 93).- Hozte-sistemetan (EJSN 10, 11, 16, 17, 19, 20, 21, 22, 23, 24...).- Prozesatzeko uren bilketetan (EJSN 10, 11, 16, 17, 19, 20, 21, 22, 23,24) etab